

A5a eta herri-estrategia



MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

EAEko hauteskundeetan atarian, antzeman daiteke zer argituko duten. Lehena, EAJren inmunitatearen neurria azken asteotan erasotu duten birusekiko, izan koroidun txinatarra, edo kirasdun zaldibartarra. Kasu bietan zalantzan jarri da jeltzaleen kudeaketa, hain zuzen alderdiaren marka nagusia dena urratuz. Argituko da zenbatekoa izan den urratu hori, ea kaltetutako ingurutik noraino iritsi den eta zenbat hautesleri eragin dion. Alabaina, pitzadura honetatik galtzen duena berdindu lezake EAJk eskuin unionistak egin duen txatxilipurdiari esker.

Bere babesean ageri da PSE-EE, Zaldibarren bezala elkarrekin gobernatzeko erakundeetan. Oraingo hauteskundeak, aspaldiko partez, Espainiako Gobernuan daudela tokatu zaizkie, eta jakina da horrek boto saria duela. Ez dute profil nabarmenik erakutsi azken legealdi honetan eta, Irun moduko salbuespenak salbu, eroso ikusten dira laguntzaile instituzionalaren eginkizunean.

Oposizioko lidergoan dago EH Bildu berrieta EAEn. Nafarroan eta Madrilen erabat oposizioan ere ez, presidentek izendatzeko edota aurrekontuak onartzeko erabakigarri bihurtuta. Gerri politikoa erakusteak disidentzia saialdiren bat eragin dio, baina hazkunde sendoa erakusten

ari da hauteskunde guztietan. Kontua da berezko hazkunde ez duela azkarra, eta alternatiba bihurtuko luketen aliantzak ez dauzkala oraindik eskura.

Ahal Dugu ez du une onean harrapatzen oraingo hitzorduak. Egia da EAEko aurrekontuetan erabakigarria izan dela eta Nafarroan nahiz Espainian gobernuan dagoela, baina barne liskarrak areagotu egin zaizkio eta zaila izango du gainbehera etetea. Deigarria da ezkerreko koalizioaren alde egin duen apustua, gutxienez agendan kokatu du gaia.

Eskuin unionistarena ez da EAEko logikan ulertzen, Espainiara begira baizik. Badirudi hemengo lehia galdutzat ematen dutela, eta etekina Ebrotik behera bilatzen. Harrigarria da nola iritsi den ia ezdeus izatera luzaro hain boteretsu ikusi duguna. Eskuin muturraren balizko ordezkari arabarrak ez du analisi hau asko aldatzen, badaude aurrekariak Araban.

Kontu hauekin, mapa politikoa eguneratu egingo da gehiago, aldatu baino. Alderdien arteko lehiak argituko ez duena da nola eraiki daitekeen Euskal Herriaren etorkizuneko herri-estrategia bat, hiru administrazio esparruetako ahaleginei jomuga partekatua eskaintzeko. Hori beste joko-zelai bat da, eta herritarren lana da gurdi hori mugiaraztea. ●

Denok hilko gara



UXUE APAOLAZA
IDAZLEA

Koronabirusak, kezkatu edo ez, gure buruen zati bat hartu du. Zaila da barruak eskatzen dizkigun purrustadak botatzea, heriotza aipatzen digutenean. Eta zutabea osatuta bidaltzeko zegoenean, Max von Sydow hil dela irakurri, eta xake-taularen aurrean ikusi dut, heriotzari denbora lapurtu nahian, Izurri Beltzak jotako ingurunean.

Azken egunotan, hileta elizkizun bat izan da kutsatze-fokuetakoa bat. Ohartarazpen bat dirudi: guztiok hilko gara. Hain argi ez dagoena da, zenbatek izango duen bizitzeko aukera hil baino

lehen. Baina hori galdetzea, ziur, demagogia da. Hiltzeko beldurrez, bizitzeari uzteko prest gaude: hori da zentzuduna izatea.

Esango didazue bizitzeko, nahitaezkoa dela ez hiltzea. Tira, eta zerk hiltzen gaitu? Nork galdetzen duen. Eta non. Galderak zerk beharrezko izan behar luke. Baina aspaldi utzi genion gure beldurraren kontrola izateari, eta denok Bagdadetik ihesi lasterka abiatu gara morroi haren antzera, eta horretan arituko gara, arduratsu, Ispahan zenbat kilometrora dugun jakin gabe, itsuan. ●